

Ahobiziak
Barakaldotik
Baliarraina

- **Euskaraldia 2018aren gora-beherak ulertzeko nahia, Hiznet-eko ikerketa egiteko aitzakia**
- **Ikerketa atalez-atal**
- 1. Euskaraldiaren Testuingurua
- 2. Euskaraldiaren Mamia
- 3. Euskaraldiaren Helburua

1. Euskaraldiaren Testuingurua

Euskaraldiaren testuingurua

- 2018ko Azaroaren 23tik Abenduaren 3ra bitarte, 11 egunez, Euskal Herri osoan euskararen erabilera areagotzeko asmoz Euskaraldia ekimena burutu zen.
- Eta euskaraldia, batez ere, bi beharriari erantzuteko sortzen da:
 - a) Militantziaren jaitsiera
 - b) Kale erabilera sabaia jota edo beherantz

Euskaraldiaren testuingurua

a) **Militantziaren Jaitsiera**

“Lehen euskalgintzan militante asko eta profesional gutxi zeuden, eta orain militante gutxi eta profesional asko daude.” J.M. Torrealдай

Gainera, azken urteetan agerikoa da euskalgintzaren militantzian eman den jaitsiera.

Nekea eta ilusio galera nabaria da, batez ere urte asko daramatenen artean.

Euskaraldiaren testuingurua

b) Kale erabilera sabaia jota edo beherantz

Soziolinguistika Klusterrak burutu ohi duen Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak 2016-ko behaketan adierazi bezala, Euskal Herrian euskararen erabilera apaldu egin da azken hamar urteetan: 2006. urtean erabilera %13,7-koa zen, 2011. urtean %13,2 eta 2016. urtean, aldiz, %12,6, beherako joera argia, beraz.

Euskaraldiaren testuingurua



Euskaraldiaren testuingurua

Erabileran gora egin ezinak eta euskaltzaleen artean igartzen den nekeak zera adierazten du...

- Eskolak bakarrik ez direla gai
- Euskaltegiak bakarrik ez direla gai

Euskaraldiaren testuingurua

- **Eskolak bakarrik ez dira gai**
- Hezkuntza zentroen bidez hainbat eta hainbat haur eta gazte euskaldundu dira. Baina, ondoren ohitura falkagatik eta ez erabiltzeagatik euskaraz berba egiteko gaitasuna galtzen dute.

Euskaraldiaren testuingurua

- **Euskaltegiak bakarrik ez dira gai**
- Euskaltegietako irakasle askoren kezka da ikasleak gero eta gehiago hurreratzen direla euskaltegietara tituluak eskuratzeko eta lanpostu hobetoetara jauzi egiteko.

Euskaraldiaren testuingurua

- Euskalgintzako nekeak eta euskararen erabilera jaitsierak eredu baten amaiera adierazten du. Jendeak euskara ikasi bai, baina ez erabiltzeagatik gaitasuna galtzen duelako.
- Hala, Euskaraldiak euskararen ezagutzatik erabilerara igarotzeko eredu aldaketa erakusten du.
 - Korrika-tik harago: euskararen aldeko jai arrakastatsua da, euskara ikasteko aldarria egiten du, baina ez du euskararen erabilera horrenbeste interpelatzen.
 - Ikastolen eta eskolen jaialdietatik harago: eredu agortua dela ematen du azken edizioak ikusita. Aldekotasuna, atxikimendua erakartzen du, baina erabileran ez dute horrenbeste eragiten.

Euskaraldiaren testuingurua

Ezagutzaren eredu amaieraren kontzeptu sinbolikoa:
BARAKALDO.

- Zonalde erdaldunagoetara bideratutako eredia.
- Eremu formaletara bideratutako eredia.

Euskaraldiaren testuingurua

Barakaldo

- **Zonalde erdaldunagoetara bideratutako eredia.**
- Lehen esaten zen euskara salbatuko bazen, Barakaldo euskalduntzean salbatuko zela. Barakaldo zerbait arrotza balitz lez euskararentzat. Euskara eta Barakaldo esaldi berean uztartzea oximorona balitz lez. Barakaldo izan da urte luzez euskalgintzaren paradigma. Jon Sarasuaren bertsoak horren lekuko. Horrek iruditeria jakin bat sortu zuen euskalgintzan. Konkistatu beharreko lurra zen Barakaldo, behin konkistatuta... salbu zen euskara.

Euskaraldiaren testuingurua

Barakaldo

- Eremu formaletara bideratutako eredia.
- Barakaldo lako eremu erdaldunak konkistatzea helburu zen eran, eremu formala konkistatzea ere lehentasun bihurtu zen. Euskarari behinola ohostuak izan zitzaizkion botere guneak berreskuratzea.

2. Euskaraldiaren Mamia

Euskaraldiaren mamia

Euskaraldiak, ezagutzatik erabilerarako eredu aldaketa ordezkatzearaz gain, hizkuntza baten biziberritzean oso garrantzitsuak diren eta aurreko ekimenek nabarmentzen ez zituzten bi faktore uzten ditu mahai gainean:

- a) Eguneroko bizimoduan euskara erabiltzearen garrantzia.
- b) Euskaraz bizitzeko nahia

Euskaraldiaren mamia

a) Euskararen erabileraren garrantzia azpimarratzen dute zenbait hizkuntzalarik:

- **Mikel Zalbide:** “hizkuntza baten osasuna neurtzeko neurgailurik hoberena erabilera da.”
- **Olatz Altuna:** “ezagutzak erabileran eragin beharrean, erabilerak eragiten du ezagutzan.” Ondarroan, adibidez.
- **Joshua Fishman:** Hizkuntza baten desagertze arriskua kalkulatzeko zerrenda osatu zuen arrisku txikienetik handienera, BAEN izenez ezagutua.

Euskaraldiaren mamia

Joshua Fishman, BAEN: Belaunaldi Arteko Erabileraren Etena

Fishmanek eraturako zerrenda honek 8 maila ditu. Mailarik xuabeena, euskararentzat arrisku gutxien duena lehenengoa da: euskara presente egotea unibertsitatean eta goi mailako lanpostuetan. Larriena, aldiz, 8. maila da: azken mohikoarena.

Euskaraldiaren mamia

1. BAEN eskalaren 1. maila: Euskara presente unibertsitatean eta goi-mailako lan-postuetan (aurrezki-kutxen, enpresetan eta abar...
2. BAEN eskalaren 2. maila: euskara administrazio-munduan eta komunikabideetan.
3. BAEN eskalaren 3. maila: Euskara, jalgi hadi (bertatik bertarako) lanera!
4. BAEN eskalaren 4. maila: Eskola.
5. BAEN eskalaren 5. maila: Hiztunak irakurle eta idazle bihurtzea. Alfabetatzea.
6. BAEN eskalaren 6. maila: Jaioko dira berriak?
7. BAEN eskalaren 7. maila: Zaharrak joan eta berririk ez. Hiztun-herririk ez dago, bai ordea hiztun-talde bakarra: herriko zaharrak.
8. BAEN eskalaren 8. maila: Azken mohikanoarena.

Euskaraldiaren mamia

Fishmanek garrantzirik handiena 6.mailari ematen dio. Hizkuntza bat 6.mailako arriskura iritsiz gero alarma guztiak pizten direla dio.

Honetan datza Fishmanen 6.mailako afera: “Aitonamonek, gurasoek eta seme-alabek (nola-hala, eta guztiek ez bada gehienek edo askok behintzat) euskaraz dakite, baina etxean edo auzoan, lagunarte hurbilean eta kale-bizitzan gero eta sarriago (batez ere gurasoek eta gazteek) erdaraz egiten dute.”

Euskaraldiaren mamia

Izan ere, euskal ontzia hondoratu ala ez, fronte honetan (6.mailan) jokutzen da beste inon baino gordinago. Eskolak ondo daude, irrati-telebistak ere bai, berdin egunkari-aldizkariak... Hori dena oso ondo dago. Baina ezer gutxi egin dezakete ekimen horiek guztiek euskara indarberritzeko. Ahulak dira neurri horiek, aldez aurretik (edo aldi berean) etxeko eta auzoko, lagunarteko eta kale-giro hurbileko euskal jarduera zaindu, indartu, babestu, oinarritu eta finkatzen ez bada.

Euskaraldiaren mamia

Ezagutzaren aldian, euskaraldiaren aurreko aldian 6.mailatik gora zeuden esparruak eskuratzea zen helburu: unibertsitatea (1.maila), administrazioa (2.maila), lana (3.maila), eskola (4.maila), alfabetzea (5.maila). Orain, ordea, egoeraren larriaz jabetuta pausu bat atzera egin eta Euskaraldiak adierazten du zeinen garrantzitsua den hizkuntzaren erabilera eguneroko bizimoduan (6.maila): familia eta lagunartean, auzoan eta kale-bizitza hurbilean.

Euskaraldiaren mamia

Izan ere, 6.mailatik atzera eginez gero, hizkuntza batek zaila du biziberritzea ziurtatzea. 7.mailak adierazten du hiztun zaharrak joan eta berririk ez dela sortzen. Hitztun-herririk ez dago, bai ordea hiztun-talde bakarra: herriko zaharrak.

Eta 8.mailak are panorama ilunagoa erakusten du: egon ez dago hiztun-herririk, ez eta hiztun-taldeko harreman-sarerik ere, bere eguneroko mintzajardun arrunta hizkuntza horretan bideratzen duenik. Hitztun-hondar batzuk gelditzen dira soilik, han-hemen barreiatuak. Azken mohikoanoak.

Euskaraldia 2018: mamia

b) Erabileraren garrantziarekin batera, Euskaraldiak erakusten du euskaraz bizitzeko nahia zein garrantzitsua den.

Izan ere, Jose Maria Sanchez Carrion TXEPETX soziolinguista ezagunak, Fishmanen antzera, goi klase eta botere guneak lehenetsi beharrean, lege bermeak eskuratu aurretik edo euskarak erabaki gune oro zein eremu formalak konkistatu baino lehen, gakoa hizkuntza gutxituko hiztunengan dagoela dio, hiztunok osatzen duten gune sinbolikoan, hain zuzen.

Euskaraldiaren mamia

Txepetxen aburuz hizkuntza baten normalizazioan ezinbestekoa da gune sinbolikoaren funtzioa. Hizkuntzaren garapen osoa burutzeko aukera ematen du gune sinbolikoak. Hizkuntzaren garapen osoa egiteak hizkuntzaren erabilera (euskara erabiltzea), ezagutza (euskara jakitea) eta motibazioa (euskararen alde egotea) barneratzea esan gura du, hiru elementuak batu behar ditu hiztunak, hiztun oso izateko.

Euskaraldiaren mamia

- Zer da Gune Sinbolikoa?
- Gune Sinbolikoak hizkuntzaren garapen osoa burutzeko aukera ematen du. Hiztun osoak eratzeko aukera. Hizkuntzaren garapen osoa egiteak, hizkuntzaren erabilera (euskara erabiltzea), ezagutza (euskara jakitea) eta motibazioa (euskaraen alde egotea) barneratzea esan gura du.
- Erabilera, ezagutza, motibazioa...hiru elementuak batu behar ditu hiztunak, hiztun oso izateko.




Euskaraldiaren mamia

Gune sinbolikoa osatzea gakoa baldin bada hizkuntzaren biziberritzean, **gune sinbolikoaren trinkotzea pausu erabakigarria da**. Hala, gune sinbolikoaren trinkotzea Izateko Nahiaren bidez adierazten da, euskaraz bizitzeko nahia izatea.

Gune Sinbolikoaren trinkotzea = Euskaraz bizitzeko nahia

Euskaraldiaren mamia



Gune Sinbolikoaren trinkotzea = Hiztun osoen euskaraz bizitzeko nahia

Euskaraldiaren mamia

- Euskaraldiak, beraz, eredu aldaketarekin batera bi aspektu mahai gaineratu ditu:
 - Eguneroko bizimoduan euskararen erabileraren garrantzia (Fishman)
 - Euskaraz bizitzeko nahia (Txepetx).
- Hori dela eta, bi faktoreek ezagutzaren eredutik haragoko euskaltzalearen profil berri bat irudikatzen dute: ahobizia!

Euskaraldiaren mamia

Eguneroko erabileraren garrantzia
familiar, lagunartean, kalean
(Fishman)

Ahobiziak



A diagram consisting of the word 'Ahobiziak' in the center. From its right side, two blue arrows branch out: one pointing upwards and to the right, and another pointing downwards and to the right.

Euskaraz bizitzeko nahia
(Txepetx)

Euskaraldiaren mamia

Ahobizia \neq Euskaltzalea

- Ezagutzatik erabilerara. Erabileran zurkaizten den euskaltzaletasuna.
- Aldekotasunetik harago. Jarrera pasibotk ekintzara bideratua.
- Euskaraz bizi gura duen euskaltzalea izendatzeko modu berri bat da ahobizia. Nolabait karga ideologikoa arinagoa duen izendapena da.

3. Euskaraldiaren Helburua



Euskaraldiaren helburua

Mamia ezagutu ondoren, Euskaraldiak euskal gizarteari zein helburu ezartzen dion aztertuko da.

Zonalde euskaldunetan euskararen erabilera ahultzen, eta zonalde ez hain euskaldunetan kostata indartzen ari denez, **helburu nagusia norbanakoak ahobizi bihurtzea da**, euskararen erabilera hauspotzen egundoko lana egin dezaketelako.

Euskaraldia 2018: helburua

Ahobiziak Euskal Herrian (Euskaraldia, 2018)

- 2018ko euskaraldian Euskal Herri osoko biztanleen %6,17ak ahobizi lez partu zuen.
- Ipar Euskal Herrian ahobiziak %2,34.
- Nafarroa Garaian ahobiziak %2,99.
- Euskal Autonomi Erkidegoan ahobiziak %7,57.

Euskaraldiaren helburua

Ahobiziak Ipar Euskal Herrian

- Ipar Euskal Herrian ahobizi portzentai handienak landa eremuko guneetan eman ziren: Gamarte % 32,15, Bunuze %12,5, Irisarri %11,99, Donibane Garazi %11,2 edota Bidarrai %10,7. Nafarroa Beherean, batez ere.
- Ipar Euskal Herriko ahobizi tasa baxuenak, berriz, hiri handietan eman dira. Baionan, esaterako, %0,67.

Euskaraldiaren helburua

Ahobiziak Nafarroa Garaian (Euskaraldia, 2018)

- Nafarroa Garaian ahobizi koputu gehien Aralar Iparraldean aurkitzen da %17,64. Jarraian, Bortziriak %14,1, Baztan aldea %13,55...
- Datuon ifrentzua Nafarroako hegoaldeko eskualdeek erakusten dute: Ebro Garaiko Erribera %0,38, Tuteria aldea %0,15 eta Arga Aragoiko Erribera %0,00 dira ahobizien eskualderik ahulenak.

Euskaraldiaren helburua

Ahobiziak Euskal Autonomi Erkidegoan (euskaraldia, 2018)

- Euskal Autonomia Erkidegoan ahobizien daturik hoberenak gipuzkoan batu dira: Urola Kostan %20,83, Debagoienan %19,92 edota Tolosaldean %17,65.
- Ahobizien portzentaje ahulenak Araba aldean batu dira: Arabako Ibarrak %2,91 eta Trebiñuko konderrian %3,72. Baina, Bizkaian Bilbo bueltan eta Enkarterrietan ere Arabaren antzeko datuak jaso dira: Bilbo handian %3,75 eta Enkarterrietan %3,9.

Euskaraldiaren helburua

Euskal Herri osoan zein herritan batu dira ahobizi gehien?

- Baliarrain (gipuzkoan): %45,1 ahobizi
- Baliarrainek euskalgintzako eredu berriaren jomuga adierazten du, iritsi beharreko helmuga. Barakaldotik Baliarraina.

Euskaraldiaren helburua

Ahobiziez gain, halere, bai Barakaldon eta bai Baliarrainen euskararen inguruan beste bi profil aurkitzen dira, :

- Hiztun osoak (belarripret izan daitezkeenak)

Hiztun osoak dira euskararen erabilera, ezagutza eta motibazioa barneratua dutenak. Hau da, Gune Sinbolikoa osatzen dutenak. Baina, ez dute izateko nahirik agertzen, ez dute euskaraz bizitzeko nahirik erakusten.

- Hiztun hartzaileak (belarriprest izan daitezkeenak)

Hiztun hartzaileak euskara ulertu bai, baina hitz egiteko gai ez direnak.

Euskaraldiaren helburua

Barakaldoren antzeko eremu erdaldunetan...

ahobiziak hiztun osoengan eragiten:

Atarrabiako Rosaren testigantza:

“Oso anekdota polita izan dut senarraren amarekin. Nahiz eta bera euskaldunzaharra izan, beti lotsatzen zen euskaraz, bere ustez, gaizki hitz egiteagatik. Hala ere, oso euskara polita du, Nafarroako Aralar ibarrakoa, eta izugarri ongi egiten du. Lehen beti erderaz egiten zuen guztiekin. Orain, euskaraldia dela eta, beti egiten du euskaraz nirekin eta bere senarrarekin. Espero dugu hemendik aurrera beste euskaldunenekin ere euskaraz aritzea.”

Rosa (Atarrabia) Ahobizi



Euskaraldiaren helburua

- **Barakaldoren antzeko eremu erdaldunetan...**
 - **ahobiziak hiztun hartzaileengan eragiten:**
- Bilboko Nerearen Testigantza
- “Nire lehen elkarrizketa elebiduna izan dut. Kafetegian euskaraz hitz egin diot tabernariari eta berak gazteleraz erantzun dit. Guztia egin ahal izan dut euskaraz.”
- Nerea (Bilbo) Ahobizi

Euskaraldiaren helburua

Baliarrainen antzeko eremu euskaldunetan...

ahobiziak hiztun osoengan eragiten:

Arrasateko Jasoneren testigantza:

“Lehenik eta behin esan behar dut nire egunerokotasuna euskaraz bizi dudala, batez ere, nire lan esparrua euskararen oinarritzen delako eta, akaso, honegatik, erraz eta beti, nire lehen hitza euskaraz da. Baina Euskaraldian banuen nire erronka eta ez nola nahikoa, nire betiko kuadrila. Asteburuari urduritasunez ekin nion eta aitortu behar dut, etxetik kalerako bidean, hamaika buelta eman nizkiola buruari lagun arteko eguneroko elkarrizketa arruntari nola eta norekin ekin irudikatzeko. Eta heldu nitzen gure ohiko topalekura eta ekin nion, natural natural ekin ere, nire harridurarako. Arratsaldea pasa genuen, betiko moduan, gai anitzetan murgilduta... Ez, betiko moduan ez, elebiko elkarrizketa aberatsetan murgilduta esan nahi nuen. Inork ez zuen Euskaraldia aipatu ere egin, Euskaraldian sartu ginen iskanbilarik gabe, goxo-goxo eta denak konplize bihurtu ginen, konplexurik gabe. Itzela sentitu nuena!!!

Euskaraldiaren helburua

Baliarrainen antzeko eremu euskaldunetan...

ahobiziak hiztun hartzaileengan eragiten:

“Bulegora iritsi eta kanpoan gure bizilaguna, (belarriprest bera) eta gure lokal jabea (euskaldunberria, baina txaparik gabe) hizketan topatu nituen. Biekin beti euskaraz egiten dut, eta beraien elkarrizketara batu nintzen. Erdaraz ari ziren biak. Ni, noski, euskaraz. Eta lokal jabeak euskaraz erantzun dit. Belarripresta harrituta, ez omen zekien euskalduna zela. Hortik aurrerako guzti-guztia euskaraz egin genuen, eta joan nintzenean hor utzi nituen biak euskaraz hitz egiten euren artean.” Asier (Arama) Ahobizi

Amaierako ondorioak

Ahobizirik leku egitera etorri dira.

Izan ere, euskara hutsean inertziaz bizitzeko garaiak eta eremuak amaitzen ari dira. Arnasguneak amaitzen ari dira eta euskaraz bizitzeko hautua gero eta erabakigarriagoa izango da. Bueltan-bueltan, inguratuago gauzkate erdarek aspaldian: telebistaren bidez, internetaren bidez, herriak elkar konektatuago daude egun.

Amaiera

Euskaraldiaren Testuingurua: **BARAKALDO**

Euskaraldiaren Mamia: **AHOBIZIAK**

Euskaraldiaren Helburua: **BALIARRAIN**

Ahobiziak Barakaldotik Baliarraina